



Kaixo, lagunok:

JOSE LUIS de la **MATA**ren heriotzaren/bizitzaren **XI. URTEURRENA** beteko da otsail honetan. Horren ondare emankorra, horren lan eskerbaren fruituak lagun ditugu gure eguneroko bizitzan: eraiki zuen eskolakoak gara eta berau babeslekuatzat dugu; sistematizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsak modelo iraultzailea gauzatu zuen gure osasun-lanbiderako; eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak eraiki eta zaintzeko zuen modua erreferentzia etikotzat dugu. Jose Luisek eta, jakina, Teresa Gilek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dute, Historiatik gure izatearen historiara.

Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, **IZARGAIN**entzat, hain esanguratsua den data hori gurekin gogoratzeko, Aresoko **ERASONEA-DE LA MATA**ENEAn egingo dugun ekitaldian parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu: **otsailaren 25ean, larunbatean, goizeko 11etan**.

2016-17ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko **Izargain-DelaMataren Eskolan** astero garatzen ari garen **www.9.Mintegiarekin**.

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurten berriro ere, antzerkira eramango gaitu gozatzerara. Guztion artean, Argien Mendeari, Ilustrazioari bizitza emango diogu. Garai hartan Ezaguera eta Gizakia goraiatu zituzten, eta **Askatasun** (urdina), Justizia eta Elkartasunaren aldeko giza-aurrerapen handiak ekarri zituzten. Danimarkan **EROTzat** hartu zuten erregeak hurbilduko gaitu garai horietara; eta guk **DARIO FO**, 1997ko Literatura-Nobel sariduna eta pasa den 2016ko urrian zendua, omenduko dugu.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, **bazkaria** egingo dugu. Bazkaltzen geratu nahi duzenok, mesedez, abisua eman e-mailen bitartez **otsailaren 24a baino lehen: ulumago@hotmail.com**

Areson ikusi arte, gure agurra eta besarkada har itzazue.

DE LA MATANEA
Izargain-Areso
2017ko otsaila

Antzezpena:

**Hay un rey loco
en Dinamarca**

Dario Fo

Nuevos Tiempos **Siruela**

